Sopelako Udala
Ayuntamiento de Sopela

## ALKATEAREN DEKRETUA

Susana García Gonzalezek, Elorduy Fundazioaren izenean eta ordezkaritzan jardunez (G48200422), 2023/11/14an (RE-4243) dirulaguntza eskatu zuen. Eskaera horren bidez, 2023ko ur-fakturen zerrendaren bostena eskatu zuen.

Sopelako Udalaren 2023-2025 hirurtekorako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko urriaren 28ko Erabakiaren bidez onartua, aztertu da. Plan horren helburuen artean dago "2023- 2025 hirurtekorako Sopelako Udalaren dirulaguntza ekintzaren irismena eta egitura zehaztea", eta eranskin bat erantsi da, dirulaguntzen zerrenda zehaztuz. Horien artean, ELORDUY FUNDAZIOAren aldeko dirulaguntza nabarmendu behar da.

Artikulu hau ikusi da: Sopelako Udalaren Dirulaguntzak Emateko Araubidea Arautzen duen Ordenantza Orokorreko 12 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira aurrekontuetan hala aurreikusten denean.

2023ko ekitaldiko aurrekontua onartu ez zenez, 2023/01/05eko Alkatetzaren 2023-0006 Dekretuaren bidez 2022ko aurrekontuaren 2023ko ekitaldirako luzapena onartzea erabaki zen, eta, ondorioz, Aurrekontua Betearazteko Arauaren transferentzien eranskina luzatutzat jo zen, non 3 231 48100 aurrekontu-partida agertzen baitzen, 3.000,00 euroko gehienekoarekin, Elorduy Fundazioari hitzarmen bidezko dirulaguntza izendun bat emateko.

Sopelako Udalaren dirulaguntzak emateko araubidea arautzen duen Ordenantza

## DECRETO DE ALCALDIA

Vista la solicitud de subvención de fecha de 14/11/2023 (RE-4243) efectuada por Susana García Gonzalez, actuando en nombre y representación de la Fundación Elorduy (G48200422), mediante la cual solicita una subvención de la quinta parte de una relación de las facturas de agua de 2023.

Visto el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Sopela para el trienio 2023-2025, aprobado mediante Acuerdo de Junta de Gobierno Local, de 28 de octubre de 2022, entre cuyos objetivos figura “concretar para el trienio 2023- 2025 el alcance y estructura de la acción subvencionadora del Ayuntamiento de Sopela”, incluye un Anexo donde se detalla una relación de subvenciones, de entre las cuales debe destacarse la subvención a favor de FUNDACIÓN ELORDUY.

Visto el art. 12 a) de la Ordenanza General Reguladora del Régimen de Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Sopela, que prevé que se podrán conceder subvenciones de forma directa cuando así se prevea nominativamente en los Presupuestos.

Visto que, al no aprobarse el presupuesto del ejercicio del 2023, mediante Decreto de Alcaldía 2023-0006 de fecha 05/01/2023 se dispuso aprobar la prórroga del presupuesto 2022 para el ejercicio 2023, y, por consiguiente, se entendió prorrogado el anexo de transferencias de la Norma de Ejecución Presupuestaria, donde figuraba la partida presupuestaria 3 231 48100, con un máximo de 3.000,00 euros, con el fin de conceder a “Fundación Elorduy” una subvención nominativa mediante convenio.

**Guruzne Carrasson Torrontegui (1 de 2)**
Alkatea
Fecha Firma: 20/12/2023
HASH: e73600c28daeb346aa5b850065352b70

**Laura Arana Aguirre (2 de 2)**
Secretaria
Fecha Firma: 20/12/2023
HASH: ff4fa177185669e606623c19daf872c9c

Cód. Validación: 65CZJ69FEDFRJ9Y5ZSZ53TLWK
Verificación: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 1 de 3

Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritakoa betez BAOn argitaratu zen 2016ko abenduaren 23ko 243. zenbakian) dagokion emakida-proposamenaren txostena izenpetzen da, organo instruktoreak 2023/12/01ean egina, eta aldeko fiskalizazio-txostena ikusita.

Visto que en cumplimiento de lo determinado en el artículo 13.2 de la Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Sopela (BOB núm. 243 de 23 de diciembre de 2016, así como en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones), se suscribe el consiguiente informe de propuesta de concesión por el órgano instructor en fecha 01/12/2023, y visto el Informe de Fiscalización favorable efectuado.

Ikusita Diru-laguntzak emateko modua arautzen duen Sopelako Udal Ordenantzaren 12 eta 13. artikuluetan (BAOn argitaratu zen 2016ko abenduaren 23ko 243. zenbakian) eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 f) artikuluak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

Considerando lo dispuesto en los artículos 12 y 13 de la Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Sopela, en virtud de las competencias que me son atribuidas por el artículo 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local,

***EBATZI DUT***

***RESUELVO***

**LEHENENGOA.-** Onartzea FUNDACIÓN ELORDUY, IZO G48200422, elkartearen alde, **1.747,23** euroko kopurua duen diru-laguntza zuzena jasotzeko eskubidea.

**PRIMERO.-** Conceder una subvención directa, de carácter nominativo a FUNDACIÓN ELORDUY, CIF G48200422, por un importe de **1.747,23** euros.

**BIGARRENA.-** Sopelako Udalaren eta ELORDUY FUNDAZIOAREN (IFK: G48200422) arteko lankidetza-hitzarmenaren testua onartzea. Bertan, dirulaguntza aplikatzeko betebeharrak eta konpromisoak zehazten dira, eta dirulaguntza justifikatutzat jotzen da, dagozkion egiaztagiriak aurkeztu baitituzte.

**SEGUNDO. -** Aprobar el texto del Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Sopela y FUNDACIÓN ELORDUY, CIF G48200422, en el que se detallan las obligaciones y compromisos para aplicar la subvención y dar por justificada la subvención, ya que han aportado los correspondientes justificantes.

**HIRUGARRENA.-** Formaliza bedi aipatutako hitzarmena, eta eska bekio “ELORDUY FUNDAZIOA”ri dokumentua izenpetzea.

**TERCERO.-** Formalizar el referido convenio y requerir a “FUNDACIÓN ELORUY” para la firma del mismo.

**LAUGARRENA.- 1.747,23** euroko gastua onartzea, 2023ko Udal Aurrekontuetako

**CUARTO.-** Aprobar un gasto de **1.747,23** euros, y ordenar realizar el pago con

Cód. Validación: 65CZJ69FEDFRJ9Y5Z5Z53TLWK
Verificación: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 2 de 3

03 231 48100 kontu-sailen pentzura, ordainketa gaia hau izango delarik: "Ur Partzuergoaren erreziboen bostena, aurkeztutako justifikazioaren arabera".

cargo a la partida presupuestaria 03 231 48100 de 2023, por el concepto "quinta parte del gasto anual de los recibos del Consorcio de Aguas, en virtud de la justificación presentada".

**BOSGARRENA.-** Elkarte interesdunari jakinarazi, ebazpen horrek amaiera ematen diola administrazio-bideari, eta beraren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaiola Alkatetzari, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epearen barruan,Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 urriaren 1ko Legearen 123 eta 124 artikuluen arabera edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, dagokion txandagatik egokitzen den horretan; errekurtso hori jartzeko epea 2 hilekoa da jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak (uztailaren 13ko 29/1998 Legeak) ezarritakoarekin. Berraztertzeko errekurtsoa aurkezten bada, berriz, ezin izango da adminsitrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri harik eta berraztertzekoaren ebazpen adierazia eman arte edo bere presuntziozko ezespena gertatu arte. Halaber, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtso jar daiteke zure eskubideen alde hobeto egiteko.

**QUINTO.-** Notificar a la entidad interesada que, contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse Recurso Potestativo de Reposición ante alcaldía en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación de este acto de conformidad con los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o bien directamente Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao que por turno corresponda, en el plazo de 2 meses contados, igualmente, a partir del día siguiente a la recepción de esta notificación de conformidad con la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa. De formularse Recurso de Reposición, no se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo hasta que el primero sea resuelto expresamente o se haya producido su desestimación presunta. Asimismo, podrá interponerse cualquier otro recurso o acción que considere conveniente para la mejor defensa de sus derechos.

Alkatetza / Alcaldía

Idazkaritza / Secretaría

ELEKTRONIKOKI SINATUA / FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE

Cód. Validación: 65CZJ69FEDFRJ9Y5ZSZ53TLWK
Verificación: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 3 de 3